

PMP ziurtagiriaren amaiera.

2011/02/23

PMP ziurtagiria lortzeko hirugarren edizioa, joan zen otsailaren 4an amaitu zen, Zamudioko Parke Teknologikoan Innobasque-k duen egoitzan. PMP (Project Management Professional) ziurtagiria proiektu-zuzendarientzako lanbide-gaitasunaren ziurtagiria da, mundu mailan ezaguna, eta norbanakoei ematen zaiena.

Mondragon Unibertsitateak zuzendu du programa hau. Prestakuntza fasea amaitu ondoren, parte hartzaileek azterketa bat gainditu beharko dute. Proba hau banaka egiten da eta internet bidez egin daiteke munduko hiri batzuetan (Espainian, Madril eta Bartzelona) dauden Prometrics zentroetan. Momentura arte, azterketa egin duten edizio honetako pertsona guztiek gainditu dute azterketa.



PMPko 3.ziurtagiria